

CULTURA 

‘Egunero hasten delako’, 50 urtean gaurkotasunik galdu ez duen eleberria

1969an idatzi zuen Ramon Saizarbitoriak ‘Egunero hasten delako’. Obra aitzindaria izan zen, Europatik zetorren modernismoari heldu eta literatur molde berria eraikitzeaz batera abortuaren gaiari heldu baitzion bete-betean. 50. urteurrenaren karira, hainbat ekitaldi egingo dira Donostian.

@AMALURARTOLA | DONOSTIA | 03/05/2019 15:25 ACTUALIZADA: 17:54

 IMPRIMIR

 ENVIAR


NOTICIAS RECOMENDADAS




GARA

«Arnagako Adierazpenak konponbide prozesua lurraldean errotu zuen» [Anaiz Funosas]



GARA

«Es importante que los integrantes de ETA participen en la vida política» [C. Card... 



GARA

Entresijos de una declaración que no dejó duda alguna



Saizarbitoriaren eleberriaren edizio berritua gaur aurkeztu da Donostian (Jon URBE/FOKU)

«50 urte pasa dira baina oraindik ere nobela honek sortzen du interesa». Baieztapen horri helduta abiatu du Iñaki Aldekoa Ereineko editoreak 'Egunero hasten delako', orain mende erdi Ramon Saizarbitoriak idatzi eta gaurkotasunik apenas galdu duen eleberriaren edizio berrituaren aurkezpena. Izan ere, 1969an ikusi zuen argia nobelak, artean frankismoa indarrean zela, eta Saizarbitoria gazteak abortuaren gaiari heldu zion bete-betean, agortzear zen mundu zaharkituaren eta Europan arnasten zen modernitatearen etorrera euskal literaturara ekarriz.



KAZETA

David Pla: «Aldaketa hauek irabazteko ambizioarekin egin ditugu»

Loading player...



Ez hori bakarrik: egitura aldetik ere obra landua eraiki zuen, bi planoko kontakizun batean oinarrituz: gizon gazte baten marmarra eta abortatzear dagoen emakumearen kontakizuna.

Edizio berrituaren aurrean –1969ko azala berreskuratzea erabaki dute– eskertua agertu da Saizarbitoria: «Balio sinbolikoa hartu du eta eskertzen dut, baina ez da nire meritua izan 54ean jaio izana eta alde onak eta txarrak zituen egoera batean heldu izana gaztarora».

69an Lur argitaletxea sortu zutenekoa ere izan du gogoan, «hura gabe ezinezkoa izango baitzen liburu hau argitaratzea», eta «ezinbestean» publikoaren artean zen Ibon Sarasolarentzat joan da eskertza: «Ibonek izan zuen eskuz idatzita bidali nizkion orri horietan zerbait bazegoela ikusteko sena».

Abortatzeko eskubidea

Liburua «desinhibiziotik» idatzi zuela ere esan du, ardura edo erantzukizun sentipenik gabe, eta abortua «zoritxarrez, zaharkitua geratu ez den gai bat» dela iritzi dio. Zentzu horretan, kontakizunaren muina non eta nola sortu zitzaion ekarri du gogora: «Nerabe nintzela, Gipuzkoako herri batean nengoen eta esan zidaten neska batek bere buruaz beste egin zuela haurdun zegoelako». Horrek zer pentsa eman zion idazle gazteari, eta eleberriaren tituluak ere, 'Egunero hasten delako', horri egiten diola erreferentzia azpimarratu du.

«Oraindik ere mundu guztia tragiko jartzen da mahai-inguruetan-eta abortuaren gaia ateratzen denean. Asmoa ez da abortuaren festa egitea, baina egia da oraindik ez dela nahikoa desdramatizatu abortuaren gaia», gaineratu du.

50. urteurreneko programa

Donostia Kultura eta Beñat Sarasola idazlea eskuz-esku aritu dira obra aitzindariaren inguruko urte osoko programazioa osatzen. Idazle donostiarrek gogora ekarri du apirilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Egunarekin bat eginez, jada nobelaren irakurraldia egin zela eta,



¿PARA QUÉ UNA
TELEVISIÓN PÚBLICA?



hurrengo hilabetei begira, lotuta dituzten ekitaldien berri eman du.

Uztailean, EHUko Udako Ikastaroen barnean jardunaldi berezia egongo dela, Poesia Orduak programazioaren baitan (irailean) nobelaren errezitaldi musikatua izango dela eta Literaktum jaialdirako (azaro erdialdean) obran oinarritutako ibilbide literarioa eta mahai-ingurua prestatzen ari direla esan du. «Hortik aurrera jardunaldi gehiago egiteko asmoa ere badugu, osatu ahala azaltzen joango garenak», aurrerratu du Sarasolak.


Os necesitamos a esas miles de **personas solidarias** para hacer frente al **#ExpolioGARA** y mirar al futuro.



Suscríbete ahora desde 3€/mes

10.000 suscripciones más para avanzar

En la última aportación al debate, el periodista Fermin Munarriz analiza la importancia que tienen los medios de comunicación en la formación de la identidad de una comunidad. Desde esa perspectiva considera que EITB debe dejar de lado competencias estériles con grupos exteriores y empezar a pensar y actuar en clave de país.



EITB, TERRITORIO, CULTURA, SOCIEDAD
Fermin MUNARRIZ

PUBLICIDAD



PUBLICIDAD

EUSKAL HERRIA

- Informan de un posible segundo ataque a dos ovejas de la osa Claverina en Uztarroze
- Aquel «apartheid» monolítico y asfixiante de UPN (y PSN)
- 40 urtez birsortzen joan den mugimendu baten ispilu
- Un hombre de 54 años muere en un accidente entre tres vehículos en la A-8 en Muskiz

MUNDO

- El dinero es la raza en la Sudáfrica posapartheid ➡
- Lavrov advierte de las consecuencias catastróficas de intervenir en Venezuela ➡
- Hamas e Israel acuerdan un alto el fuego en Gaza tras la última escalada de violencia
- El socialdemócrata Laurentino Cortizo se impone en las presidenciales de Panamá

ECONOMÍA

- 7 milioi kilo antxoa deskargatu dira Bizkai eta Gipuzkoako portuetan, kuotaren %60a
- EN SUS TALLERES, LA SNCF HACE NUEVOS LOS VIEJOS TGV ➡
- I+Med apuesta por el interés científico por encima del económico ➡
- El paro baja en 3.420 personas en Hego Euskal Herria

CULTURA

- «Aliantzak landu behar ditugu gurea bezalako hizkuntza gutxiuak dituztenekin»
- ‘Steve Bannon, el gran manipulador’, en la trastienda del gurú de la ultraderecha global
- Materia oscura a todo color ➡
- Berasalucek «I need you, I don't need you» aurkeztu du ARTgian

DEPORTES

- Wide Boyz taldekoek beste urrats bat egin dute artesien munduan
- Goi mailako bide berria zabaldu dute Dickey mendian
- Madeirako Ultratrailean Maite Maiora laugarrena izan da
- Sunny Garcia surflari mitikoa egoera larrian Oregongo ospitalean

- ▶ INFO
- ▶ EUSKAL HERRIA
- ▶ MUNDO
- ▶ ECONOMÍA
- ▶ DEPORTES
- ▶ CULTURA
- ▶ IMÁGENES
- ▶ VIDEOS
- ▶ AUDIOS
- ▶ EL TIEMPO

- ▶ OPINIÓN
- ▶ EDITORIAL
- ▶ ARTÍCULOS
- ▶ TASIO
- ▶ AL DIRECTOR
- ▶ BLOGS

- ▶ NAIZ+
- ▶ FACEBOOK
- ▶ TWITTER
- ▶ BLOGS NAIZ+
- ▶ GOOGLE+

- ▶ AGENDA
- ▶ ENVIAR EVENTO
- ▶ CULTURA
- ▶ MÚSICA
- ▶ NIÑOS
- ▶ OCIO
- ▶ TABLÓN

- ▶ ESPECIALES
- ▶ NUEVO TIEMPO
- ▶ LINEA DEL TIEMPO
- ▶ DONOSTIA 2016
- ▶ ZINEMALDI 2014
- ▶ FÚTBOL
- ▶ BALONCESTO
- ▶ GURE ESKU DAGO
- ▶ M25 ELECCIONES
- ▶ SANFERMINES

- ▶ REGISTRO
- ▶ SUSCRIPCIÓN
- ▶ CONTACTO
- ▶ PUBLICIDAD

naiz:

[CONTACTO](#)

[QUIÉNES SOMOS](#)

[FAQ](#)

[PUBLICIDAD](#)

[AVISO LEGAL](#)

[RSS](#)